



## Tolosatik Iruñerako Errege- Bidea

Jose Antonio Recondo, pasa den Maiatzak 26an Lekunberrin, 2 urteko azterketa sakonaren emaitza den obra berria "Tolosatik Iruñerako Errege- Bidea" aurkeztu zuen.

Tolosako medikuak argitaratutako azken liburu honetan, 1793an eraiki zen komunikazio bidea aurkezten digu, bai eta garai hartan bidaiari eta merkantzien garraioak suposatu zuen iraultza ere. Lan eder hau irakurleoi eskaintzeko 60 pertsonen testigantzaz gain, hainbat eta hainbat udal artxibategi aztertu ditu, Iruñeakoa, Tolosakoa, Lizartzakoa, Araitzekoa, Betelukoa, Irurtzungoa, Larraungoa, Inotzekoa, Arakilekoa, Izakoa eta Berriozarkoa, bai eta Nafarroako agiritegi orokorra, Nafarroako artxibategi diozesarra eta Gipuzkoako probintziala.

"Tolosatik Iruñerako Errege- Bidea" liburua Euskaraz eta Erdaraz idatzia, 350 orrialde eta 170 argazki ditu eta bere prezioa 35 euro dira. Autoreak esaten duenez, lan hau "sakontasunik galdu gabe obra atsegin bat da". Liburua Plazaolako Partzuergo Turistkoan eros daiteke.

